

LANGARA

golen jauna



FUTBOLAREN
HISTORIAKO
GOLEGILERIK
ONENETAKO BAT

Miguel Sanz Ovies - James Harriman

Isidro Langara mundu mailako futboleko ikur garrantzitsu dugu eta, era berean, herrikide. Nahiz zenbaitetan omenaldiak jaso, uste dugu bere ibilbidea ez dela ondo ezagutzen Andoainen eta haren familiak Real Oviedoko museoari egingo dion futbolariaren inguruko materialaren dohaintza aprobetxatuz, egokituz jo dugu material hori hemen Andoainen erakustea. Jakin badakigu Real Oviedoko jokalaririk maitatua eta miretsia izan zela eta egun ere horrela dela, izen jauka bihurturik.

Hau dela eta, erakusketa antolatu dugu, haren ibilbidea eta lorpenak irakurgai jarri ditugu bere izena daraman zubian eta Real Oviedo Fundazioak plazaratutako Miguel Sanz Oviesen eta James Harrimanen liburuxka berrargitaratu dugu. Lerro hauen bitartez hala fundazioari nola bi egileei ere emandako laguntzagatik gure eskerrik zintzoena adierazten diegu.

Esker on hori luzatu nahi diogu Langara familiari, material hau erakusgai jartzeko ematen digun aukeragatik eta, bereziki, Junkal Guerrero Langarari, bere osabari eskainita ipuin musikatua sortu duelako, aurrenekoz Bastero Kulturgunean eskainiko dena 2025eko otsailaren 23an.

Andoni Alvarez, alkatea



ANDOAINGO UDALA

Egileak:
Miguel Sanz Ovies
James Harriman

Argitaratzailea:
Andoaingo
Udal Artxiboa

Itzulpena:
Hitzurun
Hizkuntza
Zerbitzuak, S.L.

Ekoizlea:
 ERROITZ
DISEÑO MULTIMEDIA

Lege gordailua:
LG/DL-
00185/2024

Miresle handi baten hitzaurrea

Hau ez da komiki bat, baina izan zitekeen. Isidro Langara superheroi bat izan zitekeen. Tifoia, agian. Zikloia. Edo Kanoia. Zer iruditzen *Dynamite Man*? Izen horiek guztiak erabili izan dituzte bere futbol-ibilbidearen une batean zein bestean, eta denak dira zentzuzko jokariaren historia entzundakoan. Izen xelebrea duen talde bateko kide ere izan zen: *La Delantera Eléctrica*. Beste batzuek Golen Jauna esaten zioten, eta hori gehiago gustatzen zaigu. Gauza bat da ziurra: marrazki bizidunetako pertsonaia baten antzekoa zen. Naturaz gaindiko ahalmenak zituen gizona zen, baloiari hain gogor jotzen zion ostiko,



ezen, ziotenez, atek hautsi, sareak zeharkatu eta atezainak lerro gainean bultzatu baitzituen, eta atezain horiek zorabiatuta eta nahastuta gertatzen ziren, zerk jo ote zituen galdezka.

Langarak badu kondairatik asko ere, eta baliteke kondaira hori gehiegikeriekin areagotu izana. Benetan hautsi al zuen langa? Edo sarea bere tokitik atera al zuen egiaz? Zinez, ez dakigu. Baina badakigu inork baino gogorrago jotzen ziola baloiari. Badakigu atezainak eskuetako minez geratu zirela baloia geldiarazi nahi izan zutenean. Badakigu Estatuan egon den aurrelaririk onena dela, inork ez duela gainditu partida bakoitzean sartutako gol kopuruaren errekorra, selekzioarekin jokatu zueneko, eta gerra zibilaren *handicapa* kontuan hartuz gero, are hobe dela.

Batzuentzat garai guztietako jokalaririk onena da, futbolaririk ospetsu eta zoragarriena. Mexikon jokatu zuen partida bateko poster bat egin zuten, honako esaldi honekin: “Azkenean!” “Begira munduko atezainik onena munduko *shooter* onenaren baloia gelditzen!” Kontua zen atezainek ez zituztela askotan gelditzen bere baloiak.

Bai, komiki batetik ateratako pertsonaia bat bezalakoa zen, altua, indartsua eta geldiezina, balentria eta bidaia sinestezinen protagonista, atal bakoitza aurrekoa baino distiratsuagoa eta sinesgaitzagoa izanik. Bidegabeki espetxeratu zuten, heriotzari iskin egin zion, eta golak bata bestaren atzetik sartu zituen...

Elizegirekin zuen “duelua”. Hiru *hat-trick*ak jarraian. Golegile nagusi hiru urtez jarraian. Golegile nagusi hiru herrialdetan. Baloia zelai erditik hegana. Txilena areatik kanpo. Espainiako selekzioarekin partida bakarrean sartutako bost golak. Partida berean sartutako zazpi golak. Jendetza *bibaka* eta *gonka*. Itzulerako bidaia, bere Real Oviedo maitera. Bere omenezko abestia. Abestia? Abestiak, hobeto esanda.

Baina gol gehiago ere izan ziren: hirurehundik gora. Hauxe da bere historia. Gozatu. A, eta agian zuri ere bururatuko zaizu superheroi-izen bat Isidro Langararentzat, historiako aurrelaririk onenarentzat.

1. Euskal Herriko herri txiki bat

1912ko maiatzaren 15ean jaio zen Langara, Euskal Herriko kantauriar kostaldeko herri txiki batean, Pasaia Antxon. Maria eta Jose Manuel gurasoek Isidro jarri zioten txikiari, santu horren egunean jaio zelako. Izen osoa: Isidro Langara Galarraga.

Aste gutxi zituelarik, Isidro eta bere familia Elgoibarrera joan ziren bizitzera, eta zazpi urterekin Andoainen kokatu ziren behin betiko. Jose Manuel andoaindarra zen berez, eta herri horretan igaro zituen haurtzaroa eta nerabezaroa. Familia xumea izaki, aita hil zenean lanean hasi behar izan zuen Isidrok, hamahiru urte zituela, familiaren ekonomiari lagutzeko.

2. Haur langilea

Isidro txikiak Compañía Fabril Subijana lantegian egiten zuen lan; Andoaingo lantegi handiena zen, eta kotoizko ehunak, oihalak eta estanpatuak egiten zituzten. Ikastun hasi zen, baina benetan gustatzen zitzaiona futbolean jokatzeara, bere adineko mutil gehienei bezalatsu.

3. Futbolari izateko ametsa

Denbora librean futbolean aritzen zen lankideekin eta lagunekin, trapuzko 'pilota' biri-

bilak-edo erabilita; normalean desegin egiten zitzaizkien pilota horiek. Baina ez zuten beste ezer jokatzeko, 'futbol-baloi' horiekin dibertitzen ziren.

Isidrok futbol-jokalari izatea zuen amets, klub handi batean, benetako klub batean. Egunero goizean goiz jaikitzen zen eta anaia nagusiarekin joaten zen entrenatzera, Jesusekin, herriko Euskalduna ekipoak erabiltzen zuen Etxeberrieta futbol-zelaira.

Haurra zelarik ere, Isidrok sekulako indarrez jotzen zizkion ostikoak pilotari eta, horregatik, inguruko hainbat taldetan jokatzeko hasi zen. Lehenik Bildur Gutxi taldean jokatu zuen, Andoaingo haur-taldean; gero, Donostiako Esperanza ekipoan aritu zen eta, aurrerago, Tolosa CF ekipoan. Isidro hobetzen hasi zen, asko entrenatzen zuen eta futbolari izatea zuen amets.

4. Real Oviedoko 'kanoia'

Langarak lan egiten zuen lantegiko jabearen seme Antxon Subijana sarri joaten zen Oviedora ehungintzako enpresak egiten zituen oihalak saltzera. Bezero onenetako bat Luis Botas zen, Oviedoko ehungintzako produktuen denda handi baten jabea. Subijanak Langarari buruz hitz egin zion Botasi. Futbolari gaztea golegile bikaina zela esan zion. Datu horrek interesa piztu zuen Botasengan, garai hartan, gainera, Real

Isidro, eskubitik bigarrena, Bildur Gutxi kamisetarekin.



Oviedo taldeko zuzendaritzako kide baitzen; beraz, handik gutxira, euskal futbolaria Asturiasko taldeak fitxatu zuen. Isidro trenez joan zen Oviedora 1930eko abenduaren hasieran. Teatinos estadiora joan zen, eta entrenatzen hasi zen.

5. Lehen entrenamendu-saioa

Real Oviedoko entrenatzailea Patrick O'Connell irlandarra zen, eta Óscar jarri zuen atezain Langararen lehen entrenamenduan. Real Oviedoko atezaina, Óscar, Espainia osoko atezain onenetako bat zen, eta espainiar selekzioan hainbat aldiz egon zen. Isidro benetan hain ona ote zen egiaztatu nahi zuen O'Connellek. Arearen ertzean itzaroteko eskatu zion, baloia jaurtitzeko, eta jokalariei baloia gurutzatzeko esan zien. Isidroren lehen jaurtiketan, sekulako indarrarekin jo zuen baloiak langeta. Bertaraturako guztiak harrিতuta geratu ziren ostikoaren indarrarekin.

Bigarren jaurtiketa ere antzeko indarrarekin bota zuen. Óscar handia eskuez baliatu zen baloia gelditzeko, baina sartu egin zen, hala ere. Baloia indarrak atezainaren eskuak tolestu zituen, eta min hartu zuen. Eskuak gaizki jarri zituela pentsatu zuen Óscarrek. Baina ez. Jaurtiketa gehiago jaso ondoren, Langara izeneko mutikoa baloia jotzen sekulako fenomeno zela konturatu zuen.

Isidrori eskuinetik eta ezkerretik gurutzatu zioten pilota, goitik, behetik eta erditik. Jaurtiketa bakoitza alimaleko indarrarekin botatzen zuen. Beste hainbat jaurtiketaren ondoren, Óscarrek ordezko atezainari utzi zion lekua, Benjamíni, eskuetako minez zegoelako. Benjamín arroka bezain gogorra zen, baina eskuetako minez kexatzen hasi zen Isidroren txutak jaso ondoren.

Garai hartan, Espainian, baloiari indartsuen emateagatik ezagun zen Sesúмага futbolaria. Proba bukatu zenean, Isidroren jaurtiketak nolakoak ziren galdetu zioten Benjamíni. Real Oviedoko ordezko atezainak honela erantzun zuen: *“Langara honek Sesúmagaren indarra du, ehun aldiz biderkatua”*.

Isidroren erakustaldi handi horren ondoren, klubera sekulako potentzia zuen jokalaria bat iritsi zela egiaztatu ahal izan zuen O'Connell entrenatzaileak. Zuzendaritzako kideei honako hau esan zien: *“Jaun-andreok, ez diot beste frogarik egin behar futbolari honi. Norbaitek urre-meategi bat aurkitzen duenean bezala da”*. Asturiasko hiriburuko klubak futbol-baloi bati

ostiko ematean ‘kanoi’ hutsa zen jokalaria bati egin zion kontratua.

6. Amaren ezustekoa

Bere lehengo klubak, Tolosak, 3.000 pezeta jaso zituen jokalaria Oviedora transferitzeagatik, eta Isidrok, berriz, 4.000 pezeta kobratu zituen. Amari eman zion dirua, eta harrিতuta geratu zen semea halako dirutzarekin ikusita. Diru hori lortzeko zerbait desegokia egin ote zuen ere pentsatu zuen. Isidrok azaldu zion Real Oviedok ordaindu ziola diru hori klubarekin fitxatzeagatik; amarentzat ulergaitza zen hori. Amaren ustez, Erresuma Batutik iritsitako kirol hura, Espainian profesionalki jokatzen urte gutxi zeraman kirol hura, ez zen lan serioa. Ezin zuen ulertu kirola egiteagatik ordaintzea.

7. Zorioneko gaizki-ulertua

Real Oviedorekin sinatu baino zenbait hilabete lehenago, Madrilgo Athletic Club ekipoak Isidro fitxatu nahi izan zuen. Madrildar taldearen presidentek, Urquijok, taldeko langile zen Romo bidali zuen Tolosara, Langara fitxa zezan. Urquijok honako hau esan zion Romori: *“Zoaz Tolosara eta fitxatu ekipoko aurrelaria, golegile bikaina da eta”*. Romo informazio askoz gehiagorik gabe iritsi zen Tolosara. Garai hartan, klubek ez zuten ia informaziorik izaten beste ekipo batzuetako futbolari buruz. Romok taldea jokatzen ikusi zuen, eta partidaren amaieran aurrelaria fitxatu zuen, presidentek agindu bezala.

Kontua da Isidrok ez zuela aurrelari gisa jokatu egun hartan, ezker-barneko baizik. Emaitza: Langararen ordez, Romok Artechek fitxatu zuen, egun horretan aurrelari jokatu zuen eta. Zorionez, Isidrok Tolosa ekipoan jokatzen jarraitu zuen Real Oviedok fitxatu zuen arte. Madrilgo Athletic Clubera joan izan balitz, askoz zailagoa izango zatekeen Oviedok fitxatzea.

8. “Golak egiteko” makina

Oviedora iritsi eta egun gutxira, Isidrok lehen partida jokatu zuen Teatinos estadioan, Bigarren Mailako Ligako Txapelketa Nazionalan. 1930eko abenduaren 7a zen, eta Real Oviedo eta Madrilgo Athletic Club taldeak ziren aurrez aurre, hain zuzen ere, bera fitxatzen saiatu zen taldea.

Real Oviedoko zaleek lehen aldiz ikusi zuten Isidro jokatzeko, eta golak sartzeko gaitasun handia zuela egiaztatuz ahal izan zuten. Real Oviedok 4-1 irabazi zuen partida, eta Langarak bi gol sartu zituen. Hurrengo partidaren ere sartu zituen golak. Eta hurrengoan ere bai... Ia partidak guztietan ezker-barneko edo eskuin-barneko jokatzeko arren, Langarak 18 partidatan 15 gol sartu zituen Ligako denboraldian. Hurrengo denboraldian (1931-32), argi geratu zen Langarak aurrelari jokatu eta golak sartu behar zituela. Denboraldi osoan aritu zen postu horretan, eta Bigarren Mailako golegilerik handiena izan zen, 16 partidatan 22 gol sartuta.

9. Espainiako selekzioa

Oso ongi jokatzeko zenez, 1931-32 denboraldiko azken hilabeteetan Espainiako selekzioa kide izan zen. Lehen Mailan jokatu aurretik selekzioarako hautatua izandako lehen jokalaria izan zen. Debuta 1932ko apirilaren 24an egin zuen, Espainiaren eta Jugoslaviaren arteko partidaren. Norgehiagoka hura Buenavista Estadioaren inaugurazioa ospatzeko ere izan zen, eta hantxe jokatu zituen Real Oviedok etxeko partidak hurrengo 50 urteetan. Langarak debut ikusgarria izan zuen: lehen gola sartu zuen eta Espainiak 2-1 irabazi zuen.

10. *La delantera eléctrica*

Hurrengo denboraldia oso ona izan zen bai Isidrorentzat, bai Real Oviedorentzat. Langara eta beste lau aurrelariak, hau da, Casuco, Gallar, Galé eta Inciarte ezagun egiten hasi ziren gol asko sartzen zituztelako; *La Delantera Eléctrica* edo Aurrealde Elektrikoa esaten zieten.

Real Oviedok, Aurrealde Elektrikoa protagonista izanik, 58 gol sartu zituen ligako 18 partidatan 1932-33 denboraldian. Langarak 24 gol egin zituen jokaturako 18 partidatan, Castellón taldearen aurkako partidaren sartutako lau golak aintzat hartuta. Coruñaiko Deportiboren aurkako partida batean bost gol ere sartu zituen!

11. Lehen Mailara igotzea

Denboraldiko azken-aurreko partidaren, 1933ko martxoaren 19an, Madrilgo Athletic Club ekipoa berriro ere gurutzatu zen Isidroren bizitzan. Bi taldeak Lehen Mailara igotzeko lehian

zebiltzan. Real Oviedok irabazi zuen partida, nola gainera: 5-1 amaitu zen partida! Real Oviedo izan zen Bigarren Mailako txapeldun, eta Lehen Mailan jokatu zuen historiako lehen talde asturiarra. Isidrok eta bere kideek lortu zuten! Oviedoarrak eta asturiar guzti-guztiak pozez zorutzen zeuden. Taldeak Espainiako futboleko Lehen Mailan jokatu zuen hurrengo denboraldian.

12. Eskultoretarako modelo

Isidro indar handiko mutikoa zen. Altua zen, bizkar-zabala, besoak sendo, zangoak indartsu eta ondo garatuta, pilotari sekulako potentziarekin ostiko jotzen laguntzen ziotenak, denak harri eta zur utzita.

1933an, Manuel Álvarez Laviada eta Víctor Hevia Granda eskultoreek Jose Tartier enpresaburuari eskainitako eskultura bat egiteko enkargua jaso zuten, eta Isidrori eskatu zioten modelo-lanak egiteko estatua nagusiaren inguruko irudietarako. Modelo izan zen, eta Oviedoko erdialdean oraindik ikus daitekeen eskultura-taldean dago, betiko.

Eskulturan José Tartiere agertzen da, negozio-gizona eta Real Oviedoko lehen presidente Carlos Tartiereren aita, erdian eserita, garai hartan Oviedoko probintziako industria garrantzitsuenak irudikatzen zituzten lau langileren figuren tartean; izan ere, Tartierek egindako merkataritza-ekimenei esker biziberritu baitziren industria horiek.

Gaur egun, Paseo de los Álamos pasealekutik pasatuz gero, Langararen gorputza ikus dezakegu harrian zizelkatuta, euskal futbolari handiaren indar fisikoa gogorarazten duen materialean, hain justu.

13. Debuta Lehen Mailan

Isidroren eta Real Oviedoren debuta Lehen Mailan 1933ko azaroaren 5ean izan zen. Bartzelona zen aurkari Buenavista estadioan, Estatuako ekiporik onenetako bat. Real Oviedok hainbat aldaketa egin zituen plantillan denboraldi berrirako. Aurrealde Elektrikoa ere zertxobait aldatu zen aurreko kanpainarekin alderatuta. Herrerita eta Emilín zeuden orain Galé eta Inciarteren lekuan.

Partida gaizki hasi zen, 14 minuturen buruan Kataluniako taldea 2-0 irabazten ari zen. Atsedendira, ordea, markagailuan 3-3 mar-



Real Oviedo taldearen hasierako hamaika Teatinos-en 1931ko abenduaren 13an jokatu zen partidan, Langara erdian makurtuta.

katzen zuela iritsi ziren. Aurrealde Elektrikoko bi kidek sartu zituzten Real Oviedoren aldeko golak: Gallart eta Herrerita. Bigarren zatian Langarak golak sartzeko sekulako ahalmena zuela erakutsi zuen. 17 minutuan hiru gol sartu zituen, *hat-trick*; Bartzelona ezin sinetsirik zegoen. Bere lehen bi golak ia toki beretik egin zituen: kontrako atetik 40 bat metrora. Hirugarren gola penaltiz sartu zen. Horren ondoren, Mugarrak beste gol bat sartu zuen talde asturiarrentzat eta, beraz, partida 7-3 amaitu zen. Real Oviedoko zaleak hunkituta zeuden. Ezin hobeki hasi ziren Lehen Mailan!

Partida hartatik ia ehun urte igaro diren arren, garaipen hori Bigarren Mailatik igo diren ekipo guztien artetik debut onena da, oraindik ere. Eta aurkaria Bartzelona zen. Espainiako futbolaren elitean hasiera bikaina izan zuen Real Oviedok, eta debut ikusgarria Isidro, bere *hat-trick* sinestezinarekin.

14. Nondik jaurti zuen Langarak gola?

Mundu guztiak aipatzen zituen Langarak denboraldiko lehen partidan Bartzelonaren aurka sartutako bi gol harrigarriak. Ia zelai-erditik sartu zuen gola; sekulako jaurtiketak! Hilabete geroago, Bartzelonako Español hartu

zuten Buenavista estadioan, eta Florenza atezaina sinesgogor zegoen kontakizun horiek entzunda. Honako galdera hau egin omen zuen: — *Nondik egin zuen jaurtiketa Langarak?* Real Oviedoko langile batek erakutsi zion, eta ezinezkoa zela esan zuen Florenzak, esajerazioa izan behar zuela.

Español 1-0 irabazten ari zen atsedendian, baina bigarren zatiaren hasieran Langarak jaurtiketa libre bat bota zuen, gutxi gorabehera Bartzelonari bi gol sartu zizkion toki bertsutik, baina hainbesteko indarrez, ezen ezinezkoa izan baitzitzaion Florenzari gelditzea. Langarak beste bi gol sartu zituen, eta Real Oviedok 3-1 irabazi zuen partida. Langarak beste *hat-trick* bat lortu zuen. Eta Florenza Bartzelonara itzuli zenean zera esaten omen zuen, ez zuela inoiz ikusi pilota hain gogor jotzen zuen inor.

15. Lehen Mailako golegile nagusia

Lehen Mailan jokatu zuen lehen denboraldian, 1933-34, Langarak ligako beste aurrelari guztiak gainditu zituen. Denboraldiko golegile nagusia izan zen, 18 partidatan 27 gol sartuta. Gaur egun, ezein jokalarik ez du berdindu Lehen Mailan partida bakoitzeko sartutako golen ratioa, hau da, batez beste 1,5 gol.



Isidoren tiro-burukada ikusgarria Espainia eta Castillaren arteko partidaren 1934ko otsailaren 28an.

16. Golen errekorra Espainiako selekzioarekin jokatutako partida ofizial batean

1934ko martxoaren 11n, Langarak bigarren partida jokatu zuen Espainiako selekzioarekin. Madrilen izan zen, eta 1934ko Munduko Koparako sailkatzeko partida zen; aurkaria Portugal izan zen. Espainia markagailuan aurretik iritsi zen atsedenaldira, 3-0, eta horietako bi Isidrok sartu zituen. Bigarren zatian, Langarak beste hiru gol egin zituen. Partida 9-0 amaitu zen. Langarak bost gol sartu zituen. Gainditu gabeko marka da hori, oraindik ere. Ezein jokalarik ez du Langarak egun horretan adina gol sartu Espainiako selekzioaren partida batean. Bost gol partida berean!

Espainiak 2-1 irabazi zuen itzulerako partidaren, Lisboan. Isidrok sartu zituen bi goli esker sailkatu zen Espainia Italian jokatzekoa zen Munduko Koparako.

17. Munduko Kopa

Espainiak 1934ko maiatzaren 27an egin zuen debuta Munduko Kopan. Espainiako selekzioak nazioarteko futbol-txapelketa horretan parte hartzen zuen lehen aldia zen. Lehen partida Brasilen aurka izan zen. Espainiak 3-1 irabazi zuen, eta Langarak bi gol sartu zituen.

Espainiak ezin izan zuen Munduko Kopa irabazi, hein handi batean, Benito Mussolini diktadore italiarrak epaileei mehatxu egin zielako Italia txapeldun izan zedin. René Mercet

epaile suitzarrak Italiaren alde eta Espainiaren kontra egin zuen bi taldeek final-laurdenetan aurrez aurrekoa jokatu zutenean. Munduko Koparen ondoren, Suitzako Futbol Federazioak (ASF) eta FIFAk epaile hori kaleratu zuten, eta ez zuen sekula gehiago arbitro-lanik egin.

Langara ezagutzen ez zutenek haren jokaldiez eta golak sartzeko gaitasunaz gozatu ahal izan zuten. Munduko Kopako Top 11 zerrendan sartu zuten, eta munduko aurrelaririk onena zela esaten hasi ziren.

18. Errepublikako presidentearen kondekorazioa

Espainiara itzuli zelarik, Isidro eta Espainiako selekzioko kideak heroitzat hartu zituzten. Espainiako Errepublikako presidentearik, Niceto Alcalá-Zamorak, Espainiako Errepublikaren Ordena Zibila eman zion jokalaririk bakoitzari. Espainiaren eta Hungariako ekipo baten arteko partida baten atsedenaldira jaso zuten saria. Espainiak 6-1 irabazi zuen partida hori, eta Langarak sartu zituen horietako hiru.

19. Abestia

Munduko Koparen ondoren, Isidrori harrera berezia prestatu zioten Oviedon, sorpresa eta guzti: abesti bat konposatu zuten bere omenez. Pasodoble bat zen eta 'Langara' zuen izena. Lehen ahapaldiak honela zioen:



Espainiako selekzioa Coloniako futbol-zelaira irtetzen (1935). Faszismoaren goraiapamena nabaria da.

“Lángara del equipo de Oviedo destaca como el gran delantero más valiente en España”.

Abestiaren beste bertso batean gol egiteko gaitasuna aipatzen da, eta Portugalen aurka sartu zituen golak:

*“Señor
es Lángara del gol,
que triunfa en Portugal,
con arte y con valor.”*

Abestiak sei ahapaldi zituen guztira, eta azkenekoak honela zioen:

*“Y vencerá
en toda intervención,
pues Lángara es el gran
maestro del balón.”*

20. Ligako golegile nagusia, beste behin

1934-35 denboraldian, Langarak argi erakutsi zuen zergatik jotzen zuten munduko aurrelariarik onentzat. Ligako golegilerik handiena izan zen, beste behin, 22 partidatan 27 gol sartuta.

21. Hat-trickak elkarren segidako hiru partidatan

Langarak sekulakoa lortu zuen denboraldi hartan: hat-trickak lortu zituen elkarren segidako hiru partidatan. Espainiako Lehen Mailan inork ez zuen horrelakorik egin ordura arte. Eta inork ez du egin harrezkero. Langarak du marka hori oraindik ere. Golegile handiak,

hala nola Lionel Messi, Cristiano Ronaldo eta Antoine Griezmann, errekorra berdintzetik gertu ibili dira, segidako bi partidatan *hat-trick*ak lortuta, baina ez dira gai izan hirugarren partidaren ere hiru gol sartzeko.

Langara gai izan zen. Hiru gol sartu zituen Stadium Metropolitanoko zelaietan, Madrilgo Atléticoaren aurka. Hurrengo astean beste hiru gol sartu zizkion Valentziari, Valentzian. Eta hurrengoan, Bartzelonako Español ekipoaren aurka, Oviedon, Langarak lau gol sartu zituen guztira. Gol estra bat ere sartu zuen! 10 gol hiru partidatan.

22. Bost goleko lau

Espainiak bi partida jokatu zituen 1935eko maiatzean, Portugalen eta Alemaniaren aurka. Isidro sartu zituen selekzioaren bost goletatik lau. Portugalen aurkako emaitza 3-3 izan zen, eta Langarak sartu zituen partidako lehen bi golak. Astebete geroago, selekzioak partida bat jokatu zuen Kolonian. 1-0 galtzen hasi ziren, baina Langarak, botere golegileari esker, bi gol sartu zituen zazpi minututan, eta Espainiak 1-2 irabazi zuen.

23. Lehen Mailako golegile nagusia, hirugarrenez

Real Oviedoko aurrelaria Lehen Mailako golegile nagusia izan zen 1935-36 denboraldian ere. Oraingoan 28 gol sartu zituen 21 partida-



Langara Euskal selekzioaren kide batzurenkin.

tan; horrenbestez, Espainiako Lehen Mailan segidako hiru denboralditan gogegile nagusi izandako lehen jokalaria izan zen.

Langarak *hat-trick*ak sartu zituen Lehen Mailako hamabi partidatan, 1936an Gerra Zibila hasi aurretik Real Oviedon jokatu zituen hiru denboraldietan, eta hamabi partida horietatik hirutan lau gol sartzeraz ere iritsi zen.

24. Azkenak Espainiako selekzioarekin

Langarak beste bi gol sartu zituen Espainiako selekzioarekin 1936ko urtarrilean, kasu horretan, Madrilan, Austriaren aurka. 1936ko maiatzaren 3an, Isidro hamabigarren partida jokatu zuen selekzioarekin. Bernan izan zen. Espainiak 2-0 irabazi zuen eta Langarak sartu zuen lehen gola. Bidaian, Espainiako selekzioa jokalariek ostatu hartu zuten hoteleko menuaren txartel bat sinatu zuten. Ricardo Cabot Espainiako Futbol Federazio-ko idazkari nagusiari eman zioten, oroigarri.

Espainiako selekzioaren azken partida izan zen gehienentzat. Handik bi hilabetera Gerra Zibila hasi zen. Eta hainbat urtez ez zen futbolik izan.

25. Gogegile eta zaldun

1936ko ekainaren 14an, Real Oviedok lagunarteko partida bat jokatu zuen "betiko" aurkariaren aurka, Gijóngo Sporting taldearen aurka, Buenavista estadioan. Talde bisitariko jokalaria batek eskuarekin ukitu zuen baloia area barruan. Epailak penalti adierazi zuen. Zaila zen jakitea jokalaria bisitariak baloia eskuarekin nahita ala nahi gabe ukitu zuen. Batzuen ustez epailearen erabakia zuzena izan zen; beste batzuek uste zuten ez zela penalti izan. Langarak amaitu zituen eztabaidak: baloia hartu, penalti-puntuari jarri, eta epaileak txistu jo zuenean, penaltia nahita huts egin zuen, pilota atetik urrun botata. Ez zuen gola sartu eta partida irabazi nahi penalti eztabaidagarri bati esker. Partida 3-3 berdinduta amaitu zen.

26. Euskal selekzioa

1936an hasi zen Espainiako Gerra Zibila, eta bizitzaren ia alderdi guztiak geldiarazi zituen, baita futbola ere. Gatazka zela eta, 1936tik 1939ra bitarte ez zen Ligarik izan eta, horren ondorioz, Langarak ezin izan zuen Espainiako golegilerik handiena izan berriro. Une tragiko hartan, inork ez zekien, ezta berak ere, Mexikon eta Argentinan izango zenik gerora.

Real Oviedora iritsi zenetik, Langarak hainbat partida jokatu zituen Asturiasko selekzioarekin, baina 1937an Euzkadiko selekzioan sartu zen, Jose Antonio Agirre lehendakariak antolatutako taldean. Lehendakariaren asmoa selekzioa atzerri bidaltzea zen, bi helbururekin: alde batetik, propaganda egitea, Espainiako II. Errepublikaren barruan Euskal Herriko behin-behineko Gobernuaren zegoela eta Gerra Zibilean hartu zuen jarrera ezagutarazteko; eta, bestetik, dirua biltzea, erbesteratutako euskal haurren kolonietara bidaltzeko. Talde hori antolatzeko lanetan Manuel López "Travieso" aritu zen (Bilboko Athleticeko jokalaria zen 20ko hamarkadan) eta, lehen entrenamenduak zuzentzeaz gain, uniformeak egiteaz ere arduratu zen, ikurrinaren koloreekin eta Eusko Jaurlaritzaren armarriarekin. Honela osatu zuten ekipoa: atezainak: Gregorio Blasco (Athletic) eta Rafael Egusquiza (Arenas); atzelariak: Serafin Aedo (Betis), Pedro Areso (F.C. Barcelona) eta Pablito Barcos (Universitario de deportes), erdilariak: Leonardo Cilaurren (Athletic), Jose Muguerza (Athletic), Pedro Regueiro (Real Madrid C.F.), Roberto Echevarría (Athletic), Angel Zubieta (Athletic), Tomás Aguirre (Nimes) eta Enrique Larrinaga (Santanderreko R.C. Racing); eta aurrelariak: José Iragorri (Athletic), Emilio Alonso (Real Madrid C.F.), Isidro Langara (Real Oviedo), Luis Regueiro (Real Madrid C.F.), Chirri II (talderik gabe), Jose Manuel Urquiola (Madrilgo Athletic) eta Guillermo Gorostiza (Athletic). Entrenatzailea Pedro Vallana izan zen, masajista Perico Birichinaga eta delegatua, berriz, Ricardo Irezabal.

Euskaditik abiatu baino lehen, 1937ko apirilaren 23an, Bilboko aireportuan ohartarazi zieten patruila faxistek aire-bideak blokeatuta zituztela, baina Gall pilotu frantziarrak agindu zien arazorik gabe iritsiko zirela Frantziako estatura; eta bete zuen emandako hitza. Ia aldi berean, 31.000 haur baino gehiago ebakua-tu zituzten Europako hainbat herrialdetara. Horrela hasi ziren Euzkadi futbol-taldearen joan-etorriak garai dramatiko batean; aben-



1939 maiatzak 21. San Lorenzo de Almagro taldearekin lehen partida. River Plate taldeari 4 gol egin zizkion Langarak (4-2). Gualco, Colombo, Zubieta, Montoya, Terzolo, (?). (?) Cavadinini, Waldemar, Langara, Ballesteros, Beristain eta Gilli.

tura abertzalea. Apirilaren 26an egin zuten debuta Frantzian, eta Parisko Printzeen Parkean, Frantziako ligako txapeldun zen Parisko Racing taldearen aurka 3-0 irabazi zuten; Isidro Langarak sartu zituen hiru golak. Partidaren ostean jakin zuten Gernikako bombardaketaren berri. Asekabetuta, talde gisa bat egin zuten Euskal Herrirako aldi tragiko horretan. Ustez, Frantzian eta Txekoslovakian dozena-erdi bat partida jokatzera zihoazen, Melchor Alegríak antolatuta. Inork ez zuen uste bi urte eta hilabete batez luzatuko zenik. Zenbait kasutan, jakina, atzera bueltarik gabe kirol-bizitza osoan. Futbolari bikainak izateaz gain, pertsona bezala ere gizalegez jokatzeko zutelako, Eusko Jaurlaritzaren enbaxadorerik onenak bihurtu ziren munduan barrena, eta Frantzian, Txekoslovakian, Polonian, SESBn, Finlandian, Norvegian eta Danimarkan ibili ziren. Europako herrialde horietako ikusleek gogoan dute, oraindik, Langarak eta bere taldekideek jokatzeko zuten futbolaren kalitate, gol sorta ederrak sartuta ekipoa handiei: Moskuko Dinamo 4-Euskadi 7 (Langarak 5 gol), Kieveko Dinamo 1-Euskadi 3 (Langarak hiru gol), Minskeko Dinamo 1- Euskadi 6 (Langarak 2 gol)...

27. Amerikako etapa

Europako biraren ondoren, euskal selekzioak Ozeano Atlantikoa zeharkatu zuen. Mexikon idolotzat hartu zuten Langara, munduko aurrelari onena zela esaten baitzuten jendeak oraindik. Aipatzekoa da Mexikok ez zuela harreman diplomatikorik Francoren Espainiarekin. Langarak zalantza handiak izan zituen,

zail egiten zitzaion Andoaini eta Oviedori agur esatea. La Afición egunkarian honako hau argitaratu zuten Langara iritsi eta hurrengo egunean:

“Cuando Isidro Lángara pisó tierra, (...) el entusiasmo de los aficionados enloquecidos alcanzó un nuevo nivel, mientras avanzaba hacia las puertas de la estación, (...) Y todo ello acompañado de unas entusiastas exclamaciones: ¡Lángara! ¡Vamos, Lángara! ¡Larga vida a Lángara!”

28. Txilena ikusgarria

Euskal selekzioak lagunarteko partida asko jokatu zituen Mexikon eta Kuban, eta Langara izan zen izarra zaleentzat. Langararen golik txundigarrietako bat txilenaz izan zen, 1937ko abenduaren 12an. Raúl Estrada atezain mexikarrak zelai-erdiko marrarantz urrundu zuen baloia. Langarak, areatik hogeit metrora zegoela, pilota buru gaintetik igarotzen ari zitzaiola ikusita, buelta eman zuen. Ateari bizkar emanda, airean jauzi egin eta eskuineko hanka luzatu zuen baloia jotzeko. Pilota airetik joan zen, zuzen-zuzenean atearen goiko eskuairarantz. Estradak ezin izan zuen ezer egin; gertatzen ari zena ikusi, ez besterik.

Geroago, euskal taldeak, Club Deportivo Euzkadi izenarekin eta Langara jokalaria izanik, Mexikoko ligan parte hartu zuen.

29. Argentina

Gerra amaituta, Euzkadi taldea desegin egin zen Mexikon, eta Langarak Buenos Airesko San Lorenzo de Almagro taldearekin fitxatu zuen; laster bihurtu zen zaleen idolo.

Iritsi eta egun gutxira, taldekide berriekin entrenamendu-saio gutxi batzuk eginda eta Argentinako futbolerak egokitzeko ia denborarik gabe, Langarak talde berriarekin egin zuen debuta. San Lorenzok etxean jokatu zuen River Plate taldearen aurka, Argentinako talderik onenetako baten aurka, 1939ko maiatzaren 21ean. Langararen debuta ezin harrigarriagoa izan zen: lau gol sartu zituen atsedendia baino lehen. 4-2 irabazi zuten partida, eta Langara San Lorenzo de Almagrako heroi bihurtu zen.

Hurrengo egunean, Buenos Airesko egunkari batek honako hau argitaratu zuen: *“En España decían que Lángara era el mejor delantero*

de Europa. Ahora podemos decir que es el mejor del mundo”.

Langara Argentinako Lehen Mailako golegilerik handiena izan zen 1940an, 33 gol sartuta.

30. Abesti gehiago

Ukaezina da Langara oso ezagun izan zela Argentinan; horren adierazgarri dira bere omenez egindako guztiak. Horietako baten izenburua ‘Dinamitero’ zen; izan ere, bere jaurtiketak hain ziren indartsuak, ezen dinamita zutela ematen baitzuen. Beste abesti baten izena ‘Lángara’ zen, besterik gabe. Gainera, ‘El Ciclón’ izeneko tango batean Langara aipatzen da, eta San Lorenzoren historiako jokalaririk onenetako bat dela dio.

31. Mexikora itzulera

Argentinan ibili ondoren, 1943an Isidro Mexikora itzuli zen Real Club España taldean jokatzeko; Espainiatik erbesteratutako zenbait jokalaria zeuden talde horretan. 1943-44 denboraldian Mexikoko Lehen Mailako golegile handiena izan zen talde horrekin, 18 partidatan 27 gol sartuta.

Isidro izan zen Mexikoko Lehen Mailako golegile nagusia 1945-46 denboraldian ere, 30 partidatan 40 gol sartuta.

Mexikon gogoan dute oraindik Langara, gol asko sartzen zituelako. Arraroa zen partida batean golik ez sartzea. Partida bakarrean zazpi gol ere sartu zituen! 1946ko maiatzaren 19an, Real Club España ekipoak Marteren aurka jokatu zuen, eta 9 eta 2 irabazi zuten. Langara da, oraindik ere, Mexikoko Lehen Mailan 7 gol sartu dituen jokalaria bakarra.

32. Helbiderik gabeko gutunak

Langara hain zen ospetsua eta ezaguna, ezen askotan iristen baitziren gutunak Mexikora helbiderik gabe ere. Miresle askok honako hau jartzen zuten gutun-azalean: Langara (Mexiko). Mexikon mundu guztiak zekien nor zen Langara eta, beraz, gutunak arazorik gabe iristen ziren bere etxera. Postariak buruz zekiten Isidoren helbidea, hainbeste ziren jasotzen zituen gutunak!

Mexikarrekin oraindik ere esaten dute Mexikon jokatu duen futbolaririk onenetako bat



Langara ohorezko saka botatzen Euskalduna Andoaindarrak Etxeberrietan eskaini zion omenaldian (1968). AUA, 3672XX02. © Truchuelo.

dela Langara. 2015eko azaroan, Nazioarteko Futbolaren Ospearen Aretoak (Mexikoko futbolaren museoa da), Isidro Langarari omenaldia egin zion, futbolaren munduko beste figura handi batzuekin batera, hala nola Giuseppe Meazza, Santiago Bernabéu, César Luis Menotti eta Alex Ferguson.

33. Golegile nagusia hiru herrialdetan

Langara Mexikoko golegile nagusi izan zen, aurretik Espainian eta Argentinan ere halaxe izan ostean. Hiru herrialdetan Lehen Mailako golegile nagusi izatea lortu zuen lehen jokalaria izan zen mundu osoan. Futbolaren historian jokalaria oso gutxi izan dira balentria hori lortu dutenak harrezkero: Alfredo Di Stéfano, Romario, Ruud van Nistelrooy, Luis Suárez eta Cristiano Ronaldok osatzen dute eliteko talde hori, Langararekin batera. Hala ere, Langarak bakarrik lortu du, futbolaren historia osoan, egungo hiru futbol konfederaziotako herrialdetan golegile nagusi izatea.

34. Oviedora itzulera

Amerikan hainbat urte igaro ondoren, Langarak itzultzea erabaki zuen 1946an. Ia edozein

taldetan jokatzeko aukera izan zuen, zeren, 34 urte zituen arren, golegile handia baitzen oraindik. Dena den, bere ekipo kuttunera itzultzea erabaki zuen: Real Oviedo. Real Oviedoko zaleek bere hutsunea sumatu zuten, eta itzultzea nahi zuten. Abuztuaren 20an iritsi zen. Langararen itzuleraren berria bolo-bolo zabaldu zen, eta ikusmin handia eragin zituen Oviedon.

Hainbeste jende zegoen Oviedoko geltokian aurrelari handiaren zain, ezen galdetu baitzioten ea aurreko geltokian jaits ote zitekeen, hau da, Colloton. Calixto Marqués klubeko idazkaria, Manolo Meana entrenatzailea eta Herrerita taldekidea joan zitzaizkion bila.

Baina jarraitzaile asko jabetu ziren trikimailuz, eta haraino joan ziren harrera egitera. Ehundaka lagun zeuden, milaka behar bada, Collotoko geltokian, beren idoloa berriz ikusteko zain. Jendea txaloka eta bibaka ari zitzaion. Ongietorri beroa egin zioten Isidrori. Zailtasunak zailtasun, Real Oviedoko zuzendariek lortu zuten Langara Oviedora autoz eramatea. Carlos Tartiere klubeko presidentearen etxera eraman zuten, zuzenean. Agur beroaren ondoren, jokalariai kontratu berria sinatu zuen klubarekin. Langara egun horretan berean hasi zen entrenatzen.

Zaleak hunkituta zeuden, Langara berriro jokatzen ikusteko irrikaz; horregatik, klubak lagunarteko partida bat antolatu zuen San-

tanderreko Racingen aurka. Partida irailaren 15ean izan zen, liga hasi baino astebete lehenago. Buenavista estadioa lepo beteta zegoen, eta Langarak ez zuen hutsik egin. Jada ez zen gaztea, baina 4 gol sartu zituen. Real Oviedok 6-1 irabazi zuen.

35. Azken bi denboraldiak

Real Oviedora itzuli ondoren, Langarak ligako 26 partidetatik 20tan jokatu zuen 1946-47 denboraldian. 18 gol sartu zituen, ia bat partida bakoitzeko. 1947ko martxoan Irlandaren aurka selekzioarekin jokatzeko hautatua ere izan zen.

Hurrengo denboraldian, 1947-48, Isidro 10 partida ofizial baino ezin izan zituen jokatu, eta 7 gol sartu zituen. 1948ko apirilaren 18an jokatu zuen azken partida; Leónen izan zen, Kopako partida bat, Cultural y Deportiva Leonesa taldearen aurka. Real Oviedok 4-0 irabazi zuen eta Isidro 3 gol sartu zituen.

Bi gol sartu zituen Real Oviedorekin jokatu-tako lehen partidari, hamazortzi urte zituelarik, Madrilgo Atlético taldearen aurka; Real Oviedok lau gol sartu zituen egun hartan. Azken partidari ere bi gol sartu ondoren hartu zuen erretiroa, Real Oviedok egun hartan ere lau gol sartu zituela. Gaur egun, Real Oviedo ekipoko golegile handienaren errekorra eusten dio, 258 golekin. Eta, jakina, historia osoko gol-ratiorik onena berea da: 258 gol 193 partida ofizialetan. Hau da, 1,3 gol partida bakoitzeko.



Langara, Peio Artola eta Jose Esnaolaren artean, Euskalduna eta Real Sociedad taldeen beteren arteko partidari, Andoaingo hiribilduaren 375 urteurrenaren ospakizunen barruan (1990/05/26). AUA, 3748XX03 © Truchuelo.

36. Historiako gol-ratiorik onena Lehen Mailan

Isidro futbolari izateari utzi zionean, Espainiako Lehen Mailaren historiari partida bakoitzeko gol-ratio onena ezarri zuen. Batez beste 1,17 gol sartu zituen partida bakoitzeko. Espainiako Lehen Mailaren historia osoan, jokari bakar batek ere ez du lortu golen proportzio hobeaz. Langarak 105 gol sartu zituen, guztira, Espainiako futboleko Lehen Mailan jokatu zituen 90 partidetan.



Isidro Langararen zubia bere izena ematen dion plakaren bistaratze ekitaldiari Andoaína (2023/10/08). © Aiurri.

Belauneko lesio batengatik utzi behar izan zion futbolean jokatzeari; orduan, Amerikara itzuli zen, eta hainbat taldetan entrenatzaile izateaz gain, negozioak ere zuzendu zituen. Askotan joaten zen bere herrira, Andoainera, eta beti hurbiltzen zen Oviédoko lagunei bisita egitera, jende askok estimu handia baitzion. Futboletik erretiroa hartu ondoren ere, luzaroan maite izan zuten. Asturiasko hiriburura joaten zelarik, Carlos Tartiere estadiora hurbiltzen zen Real Oviédoren partidak ikustera. Klubeko zuzendaritzako kideek ohorezko sakea egitera gonbidatzen zuten, ia beti, partida hasi aurretik.

Isidro ez zuen etsairik. Ondo moldatzen zen mundu guztiarekin. Inork ez du ezer txarrik esango hari buruz. Gizon lasaia zen, ongi hezia, atsegina eta, azken batean, pertsona

ona. Azken urteak senitartekoekin igaro zituen Andoainen, lasai, oinez ibiltzen eta lagunekin berriketan. Kanean futbolean jokatzeko ikusten zituen hurrekin hitz egitea zuen gustuko. Batzuetan, aholkuak ematen zizkien partidetan gol asko sartzeko zer egin behar zuten jakin zezaten.

1992an joan zitzaigun, baina bere arima guztiarekin dago oraindik. 2015eko azaroan, Carlos Tartiere estadiora dagoen kaleari bere izena jarri zioten. Real Oviédoren partida bat ikustera estadiora joaten zaren hurrengo aldia, gogora ezazu: Espainiako historian izan den golegile handienaren kanean zaude. Langararen kanean zaude. Bere bihotzeko Andoain kuttunean, kiroldegira doan zubiari ere haren izena jarri zioten.

Senitartekoen hitzak

Nazioartean itzal handia lortu zuen futbolari aparta izateaz gain, Isidro Langara gure osaba zaharra ere bazen; zorionekoak gu! Gurasoekin adostu genuen osabak erretiroa hartzen zuenean gurekin bizitzera etorriko zela, bere bizitzako azken etapa Andoainen igaro nahi zuenez, eta guretzat opari bat izan zen; bizitzak bosgarren aitona bat ekarri zigun, nahiz eta etxean beti “osaba” esaten genion. Osabarekin partekatu ahal izan genituen urte horiek mugarri izan ziren guretzat, pertsona gisa eta familia gisa betiko markatu gintuzten.

Etxean zegoenean, dena zen berezia. Gizon lasaia zen, atsegina, maitekorra, dotorea, bakegilea, umore-ukitu oso pertsonala zuen, eta etxe osoa bizipozez kutsatzen zuen. Osabarekin hitz egiten zenuenean bizitzari buruz ikasten zenuen. Gauzak kontatzeko erraztasuna zuen, baina ez zuen gehiegizko hitzik esaten sekula. Osabaren esanak bezain adierazgarriak ziren haren isiluneak. Bere ahots sakonarekin harrapatu egiten zintuen, begirada garbi eta zintzoa zuregan finkatzen zuen, eta barne-kemena transmititzen zizun, berak bizi izandako guztiaren eta etengabe hobetzeko grinaren fruitu.

Gure haur eta gazte garaiak ere osabaren presentziak markatuta egon ziren, uda iristean egunak igarotzen baitzituen amaren aldeko aitona-amonen etxean. Ekainean agertzen zen, maleta bete alkandora; Pueblan neurriera egindako alkandora dotoreak izaten ziren, goi-mailako kotoizkoak. Mahuka luzeko alkandorak beti, baita udan ere. Milarraiazko galtzak, hain bereak zituen galtza horiek jantzi eta kantauriar udaz gozatzen zuen; jakina, Oviédora bisita bat edo gehiago egiten zituen –hori ez zuen barkatzen– lagun zaharrekinek elkartzeko. Eta horrela igarotzen zen uda, harik eta iraileko egun batean, etxean, geure buruari urtero galdera bera egiten genion arte: Non dago Isidro? Nora joan da?... Izan ere, ez ginen inoiz konturatzen noiz alde egiten zuen... agur esan gabe joaten baitzen... hor geratzen zen “hutsunea”... gaur, osabarekin akordatzen garenean, oraindik ere, sentitzen dugun hutsune berdina. Orain, agian, zinez sentitzen dugu ez dela inoiz joan.

Horregatik, esker oneko hitzak besterik ez ditugu Miguel egiten ari den lanagatik, gure osaba zaharraren figura aldarrikatze aldera. Hori ere bai baita inoiz ez dela joan sentitzeko beste modu bat.

Eta, bukatzeko, polita da honako hau esan ahal izatea: Ziur Isidro Langara eta Miguel Sanz lagun minak izango ziratekeela elkar ezagutu izan balute!

Asier eta Junkal Guerrero Langara
(Andoain-Donostia, 2020-I-28)

LANGARAREN palmaresa

- Futboleko Historiaren eta Estatistiken Nazio-arteko Federazioak (IFFHS) garai guztietako espainiar golegilerik onena izendatu zuen.
- Hiru herrialdetan (Espainia, Argentina eta Mexiko) lehen mailako golegile nagusi izan den lehen jokalaria mundu osoan.
- Espainiako Lehen Mailan segidako hiru denboralditan golegile nagusi izan den lehen jokalaria.
- Espainiar futbolaren Lehen Mailan historiako gol-ratio onena duen jokalaria (1,17 gol partida bakoitzeko).
- Espainiako Lehen Mailan 100 gol sartzeko partida gutxien behar izan dituen futbolaria (80 partida).
- Espainiako Lehen Mailan segidako hiru partidatan hat-trick egitea lortu duen jokalaria bakarra (10 gol 3 partidatan).
- 1934ko Munduko Txapelketako hamaikako idealean sartu zen.
- Espainiako selekzioaren historian golegile handi guztien artetik golen batez besteko onena duen jokalaria (1,42 gol partida bakoitzeko).
- Golen errekorra (5) Espainiako selekzioaren partida ofizial batean.
- Lehen Mailako golegile nagusia Argentinan 1940. urtean.
- Lehen Mailako golegile nagusia Mexikon 1944. eta 1946. urteetan.
- Lehen Mailan debutatu aurretik Espainiako selekzioarekin jokatu duen lehen futbolaria, 20 urte bete gabe zituelarik.
- Golen errekorra (7) Lehen Mailako mexikar ligan jokaturako partida batean.
- Nazioarteko Futbolaren Ospearen Aretoko kide Mexikon.
- 500 gol baino gehiago sartu zituen partida ofizialetan, ekipo hauekin: Real Oviedo, Euzkadi, San Lorenzo de Almagro, Real España eta Espainiako selekzioa.
- Real Oviedoren historiako golegile nagusia, 258 gol sartuta.
- Oviedoko Buenavista estadioan lehen gola sartu zuen.
- Espainiako, Asturiasko, Euskal Herriko eta Argentinako selekzioekin jokatu zuen (azken hiruren kasuan lagunarteko partidak izan ziren).
- Espainiako selekzioarekin jokatu zuen Real Oviedoko lehen futbolaria.
- Real Oviedok Lehen Mailan lortutako 100. gola sartu zuen.
- Real Oviedok Lehen Mailan lortutako 500. gola sartu zuen.